

BORROKA KOGNITIBOA: TERAPIA KOGNITIBOAK DEMENTZIAREN AURKA



Egilea: Irati Moraza González

Gradu amaierako lana - Erizaintzako gradua

Erizaintzako Unibertsitate Eskola

2023/2024

Hitz kopurua: 6081 hitz

Entregatze data: 2024/04/26



AURKIBIDEA:

LABURDURAK:	2
LABURPENA:	3
MARKO KONTZEPTUALA ETA JUSTIFIKAZIOA:	4
HELBURUA:	10
METODOLOGIA:	10
Diseinu-mota:	10
Bilaketa prozesua:	10
Hautaketa prozesua:	11
Barneratze irizpideak:	11
Kanporatze irizpideak:	11
Analisi prozesua:	12
EMAITZAK ETA EZTABAIDA:	13
Emitzen ezaugarri orokorrak:	13
Kategorien azterketa:	14
1. Funtzio kognitiboak:	14
1.1. Kognizio orokorra:	14
1.2. Oroimena:	18
1.3. Arreta:	20
1.4. Funtzio exekutiboak:	21
1.5. Praxis:	23
1.6. Lengoia:	23
2. EBJ:	24
ONDORIOAK:	27
Mugak:	29
GrALak Garapen Jasangarrirako Helburuei (GJH) egindako ekarpenak:	29
Etorkizuneko ikerketetarako gomendioak:	30
BIBLIOGRAFIA:	31
ERANSKINAK:	34
1. Eranskina: Kontzeptu-taula	34
2. Eranskina: Bilaketa-taula	36
3. Eranskina: Irakurketa kritikoa	41
4. Eranskina: Fluxu-diagrama	48
5. Eranskina: Laburpen-taula	49
6. Eranskina: Zuhaitz-diagrama	56
7. Eranskina: Erabilitako eskalen sailkapena	57



LABURDURAK:

AChEI: Azetilkolinesterasaren inhibitzaileak

ADAS-Cog: Alzheimer's Disease Assessment Scale-Cognitive Subscale

ADCS-DL: Alzheimer's Disease Cooperative Study - Activities of Daily Living Inventory

AG: Alzheimer Gaixotasuna

AGGIR: Grille d'Autonomie Gérontologique-Groupes Iso-Ressources

BADLS: Bristol Activities of Daily Living Scale

BDRS: Blessed Dementia Rating Scale / RDRS: Rapid Disability Rating Scale

BPSD: Behavioral and Psychological Symptoms of Dementia

BPT: Brown Peterson technique

CDT: Clock Drawing Test / CCDT: Clock Copying Drawing Test

DAD: Disability Assessment for Dementia

DBa: Dementzia Baskularra

D-KEFS: Delis-Kaplan Executive Function System

EBJ: Eguneroko Bizitzako Jarduerak / EBOJ: Eguneroko Bizitzako Oinarrizko Jarduerak

ENB2.tot: Exame Neuropsicológico Breve 2 (total)

EsK: Estimulazio-Kognitiboa / ErK: Errehabilitazio Kognitiboa / EnK: Entrenamendu Kognitiboa

FAB: Frontal Assessment Battery

FDS / BDS: Forward Digit Span / Backward Digit Span

GDS: Global Deterioration Scale

GJH: Garapen Jasangarrirako Helburuak

HTA: Hipertentsio Arteriala

HIES: Hartutako Immunoeskasiaren sindromea

IRPM / DRPM: Immediate recall prose memory / Delayed recall prose memory

IT: Interbentzio Taldea / KT: Kontrol Taldea / PT: Plazebo Taldea

MMSE: Mini Mental State Examination

NICE: National Institute for Health and Care Excellence

NLT: Narrative Language Test

RemT: Reminiszentzia Terapia

RBMT: Rivermead Behavioural Memory Test → RBMT-i: immediate / RBMT-d: delayed

SF: Semantic Fluency / PF: Phonetic Fluency / VF: Verbal Fluency

SKT: Syndrom Kurztest

STROOP-w: Stroop words / STROOP-c: Stroop Colors / STROOP-w/c: Stroop word/color /

STROOP-i: Stroop interference

TAVEC: Test de Aprendizaje Verbal España-Complutense

TAVEC-I: immediate / TAVEC-DLY: delayed / TAVEC-TOT: total

TB: Test de Barcelona

TEA: Test of Everyday Attention

TK: Terapia Kognitiboak

TMT: Trail making Test

LABURPENA:

Sarrera: Dementia prebalentzia handiko garuneko zenbait gaixotasunen ondorioz ematen den sindrome kroniko eta progresibo bat da. Zehazki, 2023.urtean, mundu mailan 55 milioi pertsona erregistratu ziren sindrome horrekin. Arazoa da, orokorrean, neurodegeneratiboa den heinean, denbora aurrera doan ahala, gaitz hau jasaten duten pertsonen funtzio kognitiboen narriadura progresiboa ematen dela. Baina, nahiz eta gaur egun ez den existitzen dementia sendatzen duen tratamendurik, azken urteetan, sintomatologia murrizten duten tratamendu ez-farmakologikoak aztertu izan dira. Horien artean, terapia kognitiboak daude. Hiru terapia nagusi daude: estimulazioa, errehabilitazioa eta entrenamendua. Halere, inkongruentzia handia dago, pazienteen sintomatologia murrizteko, horien eraginkortasunari eta horiek aplikatzeko moduari buruz.

Helburua: Terapia kognitiboen eraginkortasuna aztertzea dementia arina edo moderatua duten pazienteen funtzio kognitiboetan, eguneroko bizitzako jardueretan ahalik eta autonomia handiena mantentzeko.

Metodologia: Hurrengo lanean literaturaren errebisio kritiko bat burutu da. Horretarako, Medline/pubmed, EMBASE, PsycINFO, COCHRANE eta CUIDEN datu baseetako eta eskuzko bilaketaren bidez aurkitutako azken hamar urteetako argitalpenen berrikusketa egin da. Horien artean, gaztelaniaz edo ingelesez idatzitakoak, fase arineko edo moderatuko edozein dementia motadun gaixoetara zuzendutako entsegu klinikoak eta terapia kognitiboak (estimulazioa, entrenamendua edo errehabilitazioa) ezartzen zuten lanak barneratu dira.

Emaitzak: Aurkitutako argitalpen guztietatik, 15 entsegu kliniko barneratu ziren errebisio honetan eta horien emaitzak aztertu ziren. Funtzio kognitiboetara dagokionez, lengoia izan ezik, estimulazio kognitiboa aplikatu den ikerketa guztietan onurak antzeman dira interbentzio taldean epe motzean, baina ez jarraipenean. Aldiz, eguneroko bizitzako jardueretan ez dira aldaketarik eman errehabilitazio kognitiboa aplikatu zen ikerketan batean izan ezik. Entrenamendu kognitiboa, aldiz, ez zen eraginkorra izan neurtutako aldagai bakar batean ere.

Ondorioak: Funtzio kognitiboen narriadura atzeratzeko, estimulazio kognitiboa eraginkorra izan daiteke epe motzean. Hala ere, egia da denborarekin gaixotasunak aurrera egiten jarraituko duela eta zailagoa izango dela eragiten duen neurodegenerazio hori gelditzea. Eguneroko bizitzako jardueretan funtzionaltasuna mantentzeko, hiru terapien artean izan daiteke errehabilitazio kognitiboa gomendagarriagoa izatea, baina gehiago ikertu beharko litzateke. Horrez gain, ikusi da erizainek interbentzioa zuzendu dezaketela.

Hitz gakoak: dementia, terapia kognitiboak, estimulazio kognitiboa, entrenamendu kognitiboa, errehabilitazio kognitiboa, eguneroko bizitzaren oinarriko jarduerak, sintoma kognitiboak / kognizioa / funtzio kognitiboa.

MARKO KONTZEPTUALA ETA JUSTIFIKAZIOA:

Dementia garuneko gaixotasun batzuen ondorioz ematen den sindrome kroniko eta progresibo bat da. Gaixotasun horiek hainbat nerbio-zelula suntsitzen dituzte funtzio kognitibo asko hondatuz; hala nola, oroimena, pentsamendua, orientazioa, ulermena, kalkulua, ikasteko gaitasuna, hizkuntza eta judizioa¹. Askotan gaitz hau zahartzaro fisiologikoan ematen den narriadura kognitiboarekin nahasten dugu, baina dementia haratago doa, ez da zahartzaroko ondorio fisiologiko bat, baizik eta patologikoa eta ez da zertan soilik adinekoen artean eman behar (nahiz eta ohikoena izan), heldu-gazteen artean ere ager daiteke. Kontzientzian eraginik ez baduen ere, askotan aurretik aipatutako funtzio kognitibo horietan ez ezik, emozioen kontrolean, portaera sozialean edo motibazioan ere aldaketak ematen dira².

Etiologiaren arabera, sindrome hau 3 mota ezberdinetan sailkatu daiteke (1. taula). Alde batetik, endekapenezko dementia primarioak ditugu. Hauek garunean ematen diren material proteiko desberdineko (beta amiloidea, alfa sinukleina, τ proteina, PrP, TDP-43) biltegiak egoteagatik sortzen dira. Proteina multzo horiek garuneko lobulu edo erregio eta neurona ezberdinei eragiten diete, neuroendekapena sortuz. Sintomatologia bat hainbat biltegi proteiko ezberdinekin lotu daiteke, eta biltegi proteiko bat hainbat adierazpen klinikorekin³. Mota hauen artean, ohikoena, Alzheimer gaixotasuna (AG) da, zehazki kasuen %60-70-a. Nahiz eta kausa ez den ezagutzen, jakina da badaudela gaitz hori pairatzeko arriskua areagotzen duten hainbat faktore: adina (>65 urte izatea), hipertentsio arteriala (HTA), diabetesa, gainpisua, tabakismoa, gehiegizko alkohol kontsumoa, sedentarismoa, isolamendu soziala eta depresioa². AGz gain, beste hainbat dementia primario daude; hala nola, endekapen frontotemporal, dementia Parkinsonen gaixotasunean, Lewy gorputzetako dementia...^{2,3}

Bestetik, dementia sekundarioak ditugu. Hauek beste gaixotasun batzuen ondorio bezala azalerazen dira. Talde honetako dementia gehienak itzulgarriak izan daitezke kausa behar bezala tratatuz gero. Ohikoenak kausa baskularrekoak dira, non alterazio baskular, iskemiko edo hemorragiko baten ondorioz dementia agertzen den. Horrez gain, infekzioen ondoriozko dementziak (esaterako, hartutako immunoeskasiaren sindromearen (HIESa) ondoriozkoa), etiologia endokrinoko edo farmakologikoko dementziak, traumatismoen ondoriozko dementziak, etab. aurkitu daitezke sekundarioen artean³.

Azkenik, dementia mistoak daude. Hauetan, hainbat kausa ezberdin batera, eragin dezakete sindromea. Hauek, normalean, dementia primario bat (askotan AG) izaten dute kalte baskularrekin batera³.

1. taula: Dementzien sailkapena³

DEMENTZIA PRIMARIOAK	DEMENTZIA SEKUNDARIOAK
Alzheimer gaixotasuna	Dementia baskularrak <ul style="list-style-type: none"> ● Iskemikoak <ul style="list-style-type: none"> ○ Dementia multiinfartua ○ Dementia infartu estrategikoagatik ○ Lakunar egoera ○ Leukoentzefalopatia subkortikal arteriokliotikoa (Binswanger gaixotasuna) ○ Herentziazko arteriopatiak <ul style="list-style-type: none"> ■ CADASIL/CARASIL ○ Arteriopatia hipertentsiboa eta arteriokliotikoa ○ Baskulitisa ● Iskemiko-hipoxikoak <ul style="list-style-type: none"> ○ Entzefalopatia hipoxiiko-iskemikoa ○ Substantzia zuriko infartu osatugabeak ○ Bihotzekoak mugako lurraldean ● Hemorragikoak <ul style="list-style-type: none"> ○ Hematoma subdural kronikoa ○ Odoljario subaraknoidea ○ Garuneko hematoma ○ Angiopatia amiloidea
Endekapen frontotenporala	
Lewy gorputzen demenzia	
Dementia Creutzfeldt-Jakob-en gaixotasunean	
Familia-entzefalopatia neuroserpina-gorputzekin	
Dementia Huntington-en gaixotasunean	
Endekapen kortikobasala	Gaixotasun sistemikoen ondoriozkoak
Paralisi supranuklear progresiboa	Traumatismoen ondoriozkoak
Dementia Parkinsonen gaixotasunean	Gaixotasun psikiatrikoen ondoriozkoak
Atrofia multisistemikoa	Epilepsia gaixotasuneko demenzia
Heredoataxiak	Beste batzuk.

Bestalde, demenziak gaixotasunaren progresioaren arabera fase arinean, moderatuan zein larrian klasifikatu daitezke. Horretarako, hainbat eskala erabili daitezke eta horien artean ohikoena Global Deterioration Scale (GDS, [2. taula](#)) da⁴.

2. taula: GDS eskalaren faseak eta demenziaren larritasunaren arteko erlazioa⁴

Fasea	Diagnostikoa
1. Narriadura kognitibo eza.	Normala (MMSE: 30)
2. Narriadura kognitibo oso arina.	Ahazteak (MMSE: 25-30)
3. Narriadura kognitibo arina.	Nahaste goiztiarra (MMSE: 20-27)
4. Narriadura kognitibo moderatua.	Dementia arina (MMSE: 16-23)
5. Narriadura kognitibo moderatu-larria.	Dementia moderatua (MMSE: 10-19)
6. Narriadura kognitibo larria.	Dementia moderatu-larria (MMSE: 0-12)
7. Narriadura kognitibo oso larria.	Dementia larria (MMSE: 0)

Diagnostikorako, ezinbestekoa da pazienteak funtzio kognitiboetan gainbehera nabarmen bat jasatea, ebaluazio neuropsikologikorako erabiltzen diren eskaletan desbideratzeak izatea, dependentzia maila areagotzea eta beste nahasmen neurologikoetatik diferentziatzea^{3,5} (3.

taula). Horretarako, osasun arloko profesionalok balorazio kliniko bat egin behar diogu pazienteari. Alde batetik, beste gaixotasunen presentzia baloratuko da. Bestetik, egoera funtzionala baloratuko da hainbat eskala erabiliz: Barthelen eskala, eguneroko bizitzako oinarritzko jardueretarako (EBOJ) autonomia baloratzeko eta Lawton eta Brody eskala eguneroko bizitzako jarduera instrumentalerako autonomia-maila (EBJI) zehazteko. Azkenik, egoera neurokognitiboa baloratuko da, orokorrean Mini Mental State Examination (MMSE) eskalaren bidez. Orientazio tenporo-espaziala, memoria, arreta, kalkulua, abstrakzio-gaitasuna eta hizkuntza baloratzen ditu azken honek (eskolatzearen arabera doitu behar da, <24ko puntuazioek narriadura kognitiboa adierazten dute). Gainera, badaude beste hainbat eskala: Alzheimer's Disease Assessment Scale-Cognitive Subscale (ADAS-Cog), Pfeifferen galdetegia, Isaacsen Set-testa...^{3,6,7}. Behin narriadura kognitibo bat dagoela ziurtatu denean, laborategiko frogetara jo behar da. Hauek demenzia eragin dezaketen adineko pertsonen komorbiditateak baztertzea zuzenduta daude. Odoleko proba analitikoak egin behar dira honako parametro hauek aztertuz: hemograma, sedimentazio globularraren abiadura, elektrolitoak, glukosa, gibleko eta giltzurruneko funtzioa, tirotopina (TSH), B12 bitamina eta azido folikoa. Amaitzeko, kasu berezi batzuetan, neuro-irudiko frogak egin daitezke diagnostiko diferentzial bezala. Esaterako, alterazio baskular baten susmoa dagoenean, garuneko erresonantzia magnetiko bat egin daiteke³.

3. taula: Demenzia eta kognizioari eragiten dioten beste sindomeen arteko ezaugarri diferentzialak³

SINDROMEAK	EZAUGARRI DIFERENTZIALAK
Delirium	Kontzientzia-mailaren narriadura, akutua edo azpiakutua.
Sindrome neurokonduktual fokala	Alterazio nabarmena eremu kognitibo bakarrean (afasia, agnosia apraxia, etab.) edo konduktualean.
Dementziarik gabeko alterazio kognitiboak	Defizitek ez dute eragin nabarmenik ohiko jardueretan.
Gogo-nahastea eta/edo antsietatea	Animoaren alterazioa, antsietatea eta beste adierazpen psikologiko eta jokabidezko batzuk.
Adimen-atzerapena.	Eskuratzerik eza.

Sintomatologiari dagokionez, bi multzo ezberdinetan banatu dezakegu: sintomatologia kognitiboa eta ez-kognitiboa. Bigarren honetarako, badago ingelesez sortutako termino bat, Behavioral and Psychological Symptoms of Dementia (BPSD), demenzian ematen diren sintoma konduktual eta psikologiko gehienak barnebiltzen dituena. Nazioarteko elkarte psikogeriatricoak (International Psychogeriatric Association, IPA) honela definitzen ditu BPSDak: "pertzepzioaren, pentsamenduaren edukiaren, gogo-aldartearen edo jokabidearen alterazio-sintomak, sarritan demenzia duten pazienteengan ematen direnak". Sintoma hauek, bi taldetan sailkatu daitezke: konduktualak (pazientea behatuz identifikatzen direnak) eta psikologikoak (pazientea elkarrizketatuz identifikatzen direnak). Bestalde, sintoma kognitiboak

funtzio kognitiboetan (arreta, orientazioa, memoria, gnosiak, funtzio exekutiboak, praxiak, hizkuntza, kognizio soziala eta trebetasun bisoespazialak.) alterazioak sortzen dituztenak dira⁸.

Horrez gain, argi dagoena da gaixotasunak aurrera egin ahala, zaintza pertsonalekin laguntzeko beharra areagotu egiten dela. Azken finean, demenziak ondorio fisikoak, psikologikoak, sozialak eta ekonomikoak ditu, gaixoarentzat, zaintzaileentzat (erizainak barne), familientzat eta, oro har, gizartearentzat. Zehazki, 2019an, demenzia, adineko pertsonen artean, desgaitasunaren eta ondorioz mendekotasunaren kausa nagusietako bat da eta zazpigarren heriotza-kausa mundu osoan zehar. 2023an 55 milioi pertsona demenziadun erregistratu dira mundu osoan zehar eta ikerlarien hitzetan urtero 10 milioi kasu berri ematen dira, zehazki kalkulaten da 2050. urtean 139 milioi pertsonak demenzia izango dutela^{2,9}. Beraz, guzti hori kontuan hartuz, ondoriozta dezakegu gaixotasun honek kostu ekonomiko oso altu bat duela osasun sistemarako, Espainian, hain zuzen ere, paziente bakoitzeko, urtero 30.000€ inguru gastatzen dira profesionalen arretan, farmakoetan, ospitalizazioetan, egiten zaizkien diagnostiko zein frogetan...¹⁰ 2019. urtean, US\$ 1,3 bilioi zuzendu ziren demenziara mundu mailan, eta gutxi-gorabehera horien %50-a zaintzaile informalek ematen duten arretari egotzi dakioke, batez beste bost ordu inguru ematen baitituzte egunero arreta, zaintze eta gainbegiratze lanetan². Kalkulaten da 2030erako US\$ 2,8 trilioi zuzenduko direla⁹.

Bestalde, aipagarria da zaintzaileek gainkarga handia jasaten dutela. Demenzia duten eta BPSD larriak dituzten pertsonen zaintzaile helduen depresioaren prebalentzia %23tik %85era bitartekoa izan da garatutako herrialdeetan, eta antsietate-tasa %16tik %45era bitartekoa. Haserrea eta erresumina zaintzaileek eskuarki sentitzen dituzten emozioak dira, eta horrek batzuetan zaintzailea indarkeria erabiltzera eramaten du. Hori gutxi balitz ere, HTA, diabetesa edo arazo kardiobaskularrak bezalako gaixotasunak pairatzeko arriskua handitzen dute⁸. Argi dago gainera, gaixotasun horiek ere sistemaren gastua areagotzen dutela.

Honekin guztiarekin, argi ondoriozta dezakegu gaixotasunaren progresioa kontrolatzea zein moteltzea ezinbestekoa dela instituzionalizazio goiztiarra ekiditeko, koste ekonomikoak murrizteko, gaixoen eta haien zaintzaileen bizi-kalitatea hobetzeko eta pazientearen autonomia ahalik eta gehien mantentzeko dependentzia gradua murriztuz¹¹. Eta horretarako, gaur egun badaude demenziarako tratamendu farmakologikoak zein ez-farmakologikoak.

Lehenengo multzokoei dagokionez, gaur egun ez dago prebentzio eraginkorrik, ezta gaixotasuna sendatzen edo geldiarazten duen tratamendu etiopatogenikorik; baina sintomak kontrolatzeko farmakoak ditugu, kognizioa eta jokabide-alterazioak hobetzeko. Demenzia motaren arabera ezberdinak izaten dira. Esaterako, demenzia primarioetan, AGn zehazki, antikolinesterasikoak (azetilkolinesterasaren inhibitzaileak (AChEI), futzio kolinergikoak areagotzen dutenak) eta transmisio glutamatergikoaren modulatzaileak (memantina) maiz erabiltzen dira, baina hauen efektua oso txikia izaten da¹². Bestalde, gaixotasun ezberdinen

ondorio diren demenzietan ezinbestekoa izaten da kausa tratatzea. Adibidez, demenzia baskularrean, gaixotasun zerebro-baskularra prebenitzeko edo tratatzeko neurriak hartu behar dira^{13,14}.

Bigarren multzoan, tratamendu ez-farmakologikoen artean, terapia kognitiboak (TK) aurkitu ditzakegu. Teknika hauek erabiltzen dira pentsamendua eta kognizioa hainbat zabalatasun eta espezifikotasun mailatan inplikatzeko. Helburutzat prozesu kognitiboak hobetzea edo mantentzea eta arazo kognitiboak hiltzea dute. Horren barruan, hiru terapia-mota bereiz ditzakegu; hala ere, termino horiek berdin erabili izan dira eta erabiltzen jarraitzen dira literaturan, eta horrek nolabaiteko nahasmena sortzen du¹⁵.

Lehenik, estimulazio-kognitiboa (EsK) dugu. Terapia honek funtzionamendu kognitiboa eta soziala oro har hobetzeko hainbat jardura eta eztabaidatan (normalean taldeka) parte hartzea sustatzen du. Konpromiso horrek inplizituki memoria, funtzionamendu exekutiboa eta hizkuntza-trebetasunak sustatzen dituela suposatzen da. Gainera, estimulazio mental egokiak eta bideratuak bide neuronal berriak garatzea ekar dezake. Helburu nagusia pazientearen orientatzea eta trebetasun atseginetan parte-hartzea sustatzea da¹⁵⁻¹⁷. Terapia hau gehien erabiltzen den terapia da, orokorrean, 2006. urtean Erresuma Batuan, Spector et al. argitaratu zuten protokoloari jarraituz¹⁸.

Bigarrenik, errehabilitazio kognitiboa (ErK) dugu. Terapia honek oso ikuspegi indibidualizatua du estimulazio kognitiboko terapiekin alderatuz, eguneroko jardurekin lotutako helburu pertsonaletan oinarritzen da. ErK-ak berekin dakar demenzia duen pertsonak eta inguruko jendeak (adibidez, familiakoek eta lagunek) interbentzioa zuzentzeko prestatuta dagoen terapeuta batekin elkarlanean aritzea, helburuak identifikatzeko eta narriadura kognitiboak pertsonaren independentzian duen eragina murrizteko estrategiak garatzeko. Helburu potentzialak pertsonaren funtzionamendu kognitiboaren eta jokabidearen ebaluazio integrala, doikuntza psikologikoa eta aurre egiteko estiloak eta eskura dagoen laguntza oinarri hartuta definitzen dira¹⁵⁻¹⁷.

Azkenik, entrenamendu kognitiboa (EnK) dugu (batzuetan, literaturan "garun-entrenamendua", "berrentrenamendua" edo "erremediatzea" gisa deskribatuta). Honek prozesu eta trebetasun kognitibo espezifikoak lantzen ditu (adibidez, arreta zatitua, prozesatze-abiadura, etab.). Ariketa kognitiboan eta entrenamendu estrategikoan bereiz daiteke; azken horrek estrategia kognitibo espezifikoaren erabilerari buruzko instrukzioa eta praktika eskatzen ditu errendimendua hobetzeko. Terapia honen helburua trebetasun kognitibo espezifikoak hobetzea, mantentzea edo berreskuratzea da. Hasiera betan, jardura hauek papera eta arkatza bidez burutzen dira, baina teknologia eboluzionatuz eta gure egunerokotasunean murgilduz joan den heinean, gero eta terapia gehiago ordenagailuen bitartez egiten dira¹⁵⁻¹⁷.

Amaitzeko, ezinbestekoa da aipatzea erizainaren papera dementziaren detekzioan eta zaintzan ezinbestekoa dela. Erizainok, eguneroko lanaren bidez, dementziaren etapa prodromikoetan sintoma neuropsikiatrikoen presentzia antzeman dezakegu, narriadura kognitiboaren eta funtzionalaren diagnostiko goiztiarra egiteko. Azken finean, Lehen Mailako Arretako erizainak ezinbestekoak dira osasuna sustatzeko eta gaixotasuna prebenitzeko¹⁹.

Bestalde, lehen aipatutako MMSE test-a edo Barthel eskala bezalako tresnak eskuragarri ditugu, kasu narriadura kognitibo bat eta haren larritasuna zein eragina EBJ-etan antzemateko aukera ematen dutenak. Horrez gain, pazienteak espezialistarenera bideratzeko bideak ditugu hauek ebaluazio neuropsikologiko zehatzagoa egin dezaten¹⁹. Gainera, TKak Lehen Mailako Arretako erizainen gomendio-tresna izan daitezke dementzia duten pazienteentzako eremu komunitarioan. Erizainek, behintzat, jakin beharko lukete existitzen direla, dementziaren tratamendu ez-farmakologiko gisa gomendatu ahal izateko. Era berean, prestakuntza egoki batekin, baliteke horietako batzuk erizaintzako profesionalek gidatzea, esaterako, egoitzetan edo lehen mailako arretan bideratzen direnak; erizainen funtzioen artean osasun-hezkuntza aurkitzen baita, azken finean, terapia kognitiboak hezkuntza programak baino ez dira²⁰.

Laburbilduz, terapia kognitiboaren eraginkortasunaren berrikusketa garrantzitsua da zehazteko zer terapia baliagarria den dementziaren tratamendurako. Horrez gain, aztertu behar da interbentzioan erizainek parte hartzen duten. Azkenean esku-hartze horietakoren bat eraginkorra bada, erizainek interbentzio gisa har dezakete eta paziente dementziatuetan aplikatzen has daitezke. Horrela, beren funtzio nagusia beteko dute: pazienteen behar guztiak asetzea. Izan ere, narriadura kognitiboa moteltzea edo atzeratzea lortzen badute, pazientearen funtzionaltasunari eutsiko diote eta oinarritzko behar askotan (jan eta edan, kanporatzea, janzteia edo eranztea, nork bere burua garbitzea, komunikatzea...) laguntza behar izatea prebenituko dute. Gainera, instituzionalizatutako pazienteen kopurua murriztu egingo litzateke, osasun-sistemaren gastuak murriztuz. Halaber, funtzio kognitiboek hobera egiten badute, gaixo horien zaintzaile nagusien karga murriztu daiteke, eta pertsona horien zaintzapean egoteak eragiten dizkien gaixotasun asko (lehen aipatutakoak) prebenitu. Eta horrek, aldi berean, sistemak zaintzaileei arreta emateko erabiltzen dituen gastu ekonomikoak murriztuko ditu.



HELBURUA:

Terapia kognitiboen eraginkortasuna aztertzea dementzia arina edo moderatua duten pazienteen funtzio kognitiboetan, EBJetan ahalik eta autonomia handiena mantentzeko.

Helburu honek erantzuna ematen dio Osasunaren Munduko Erakundearen (OME) 3. helburu jasangarriari²¹ (bizitza osasuntsua bermatzea eta adin guztietako biztanleei ongizatea sustatzea). Halaber, nazio mailako "Plan Integral de Alzheimer y otras demencias 2019-2023"²² agiriko 4. eta 5. helburu orokorrekin ere lerrokatuta dago lan hau.

METODOLOGIA:

Diseinu-mota:

Literaturaren errebisio kritikoa.

Errebisio hau egiteko Gasteizko Erizaintza eskolako Gradu Amaierako Lanen Batzordeak ezarritako irizpideak jarraituko dira²³.

Bilaketa prozesua:

Lanaren helburuari erantzuna bilatzeko, literatura zientifikoaren errebisio kritikoa burutu egin da. Horretarako, helburua deskonposatu zen kontzeptu nagusiak lortuz. Ondoren, horien sinonimoak bilatu ziren eta ingelesera itzuli ziren. Azkenik, kontzeptu nagusi horiek datu-baseetan erabili ahal izateko, horien deskriptoreak bilatu ziren tesauro desberdinetan ([1. eranskina](#)).

Lehenengo fase horren ondoren, bilaketa-ekuazioak sortu ziren, deskriptoreak AND edo OR boleanoen bidez elkartuz. Ekuazio horiek Medline/Pubmed, CUIDEN, COCHRANE, EMBASE eta PsycINFO datu baseetan sartu ziren. Bilaketa ahalik eta gehien zehazteko limiteak ezarri ziren: 2013-2023 urteen bitartean argitaratuak izatea eta entsegu kliniko motako artikulua izatea. Modu horretan, 564 emaitza eskuratu ziren. Gainera, eskuzko bilaketa gauzatu zen Elsevierreko "Science Direct" baliabidean, 247 emaitza lortuz. Bestalde, helburuarekin lotura estua zuten bi errebisio sistematiko eta meta-analisen erreferentzien azterketa sakonak beste 20 emaitza eman zituen ([2. eranskina](#)).

Azkenik, ebidentzian oinarritutako bi instituzioetan (RNAO eta NICE) bilaketak egin ziren, baina ez emaitzak aztertzeko, baizik eta eztabaida eta ondorioak osatzeko. Bertan, 28 emaitza eskuratu ziren, baina gida bakarra erabili zen azkenean.

Hautaketa prozesua:

Barneratze irizpideak:

- **Argitalpen-motak:**
 - Entsegu klinikoak (ausazkoak, quasiesperimentalak eta preesperimentalak), eraginkortasuna neurtzeko disenu egokiak direlako eta iturri primariokoak direlako.
- **Populazioa:**
 - Dementia mota guztiak barneratuko dira, guztiek eragiten baitiete eremu kognitiboari.
 - Dementia arina edo moderatua: ikerketa gehienen fase hauetan dauden pazienteak aztertzen dituztelako; izan ere, fase larriko pazienteetan narriadura oso aurreratuta dago eta zaila da esku-hartze bat fase horretan ezartzea.
 - Edozein adinetakoak. Instituzionalizatuak zein komunitatean bizi direnak: terapia kognitiboak ezartzeko ez duelako axola pazientearen adina edo bizilekua.
- **Interbentzioa:** estimulazio, errehabilitazio edo entrenamendu kognitiboko edozein terapia. Hauek baitira helburuari erantzuteko aztertu nahi diren esku-hartzeak.
- **Argitalpen-urtea:** Literatura berria, 2013. urtetik aurrera argitaratutako artikuluak.
- **Argitalpenaren hizkuntza:** Gazteleraz edo ingelesez idatzitako artikuluak aukeratuko dira soilik, lan honen egileak ulertzen dituen hizkuntza bakarrak baitira.

Kanporatze irizpideak:

- Barneratze-irizpidean sartzen ez direnak.
- Esku-hartzea gaixoei zuzendu beharrean, zaintzaile nagusiei zuzentzen duten artikuluak; izan ere, lan hau demenziadun pazienteen arretara dago bideratuta.

Aurretik azaldutako datu-baseetan bilaketak egin ostean eta eskuzko- bilaketa burutu ondoren, guztira 930 argitalpen lortu ziren eta 3 faseen bidez, hauen hautaketa burutu zen. Lehenengo fasean, horien guztien izenburua eta laburpena irakurri zen eta goian aipatutako barneratze- eta kanporatze-irizpideak jarraituz, 78 artikulua barneratu eta 852 kanporatu ziren (helburuarekin bat ez zetozelako, edo irizpideekin bat ez zetozelako; hala nola, populazioa edo interbentzioa ezberdina zirelako, ez ziren saiakuntza klinikoak edota ez zuten kognizioa zein EBJk neurtzen). Aukeratutako 78 horietatik, 36 artikulua errepikatuta zeuden, beraz, horiek kanporatu ziren.

Bigarren fasean, geratzen ziren 42 artikuluen testu osoa irakurri zen eta, horietako 25 kanporatu behar izan ziren (horietatik 1ek helburuari erantzuten ez ziolako, 20k irizpideekin bat egiten ez zutelako eta 4k beste artikulua baten ikerketa berdina burutzen zutelako). Azken fasean, 17 artikuluen irakurketa kritikoa burutu zen. Horietatik 2 artikulua kanporatuak izan ziren, metodologikoki ahulak baitziren eta lanaren emaitzetan azkenik erabili ziren 15 artikulua hautatu ziren ([3. eranskina](#)).

Literatura hautatzeko prozesua fluxu-diagraman islatzen da ([4. eranskina](#)).



Analisi prozesua:

Azkenik, hautatutako 15 artikulua sakonki analizatu ziren eta argitalpen horietan deskribatutako ezaugarri garrantzitsuenak (helburua, diseinua, populazioa, lagina, interbentzioa, emaitzak eta oharrak) laburpen taula batean jaso ziren ([5. eranskina](#)). Datu horiei erreparatuz, informazioa 2 kategoria nagusietan egituratu zen, emaitzen arabera: Funtzio kognitiboak eta EBJk. Funtzio kognitiboaren adarretik, kognizio orokorra, oroimena, arreta, funtzio exekutiboak, praxis eta lengoaia azpiadarrak sortu ziren. Amaitzeko, atal bakoitzetik 3 azpiatal eratu ziren, ezarritako terapiaren arabera: estimulazio kognitiboa, entrenamendu kognitiboa eta errehabilitazio kognitiboa.


Sailkapen hau zuhaitz kategorial batean azaltzen da [6. eranskinean](#).

EMAITZAK ETA EZTABAIDA:


Emaitzak eta eztabaida atal honetan, errebisio bibliografiko honetan barneratutako hamabost artikuluetan topatutako emaitza guztien azterketa burutuko da. Horretarako, lehenik eta behin argitalpenen ezaugarri nagusiak (diseinu-mota, argitalpen urtea, herrialdea, aplikatutako interbentzioa, aztertutako dementsia mota zein fasea, aztertzen diren emaitzak eta populazioaren adina, sexua eta ikasketa urteak) azalduko dira. Ondoren, zuhaitz kategorialari jarraituz, kategoria bakoitzaren interpretazioa burutuko da.

Emaitzen ezaugarri orokorrak:


Lehenik, diseinu-motari dagokionez, aukeratutako artikuluen artean gehienak (14/15) ausazko saiakuntza klinikoak izan dira²⁵⁻³⁸; horrez gain, saiakuntza kliniko pre-esperimental bakar bat barneratu da²⁴ (1. irudia). Bigarrenik, 2013 eta 2023 bitarteko artikulua hautatu ziren. Horietatik hiru 2013koak dira, bat 2014koa, bat 2016koa, lau 2017koak, bat 2019koa, bat 2020koa, bi 2021koak eta beste bi 2022koak (2. irudia). Argitalpen herrialdeei dagokionez, mundu-maila osoko artikulua aztertu dira. Horien artean Finlandiako bat, Erresuma Batuko lau, Italiako beste lau, Espainiako bi, Japoniako bat, Frantziako bat, Mexikoko bat eta Tanzaniako beste bat aurkitu dira (3. irudia).



1. irudia: diseinu-motak (Irati Morazak egina)



2. irudia: argitalpen urteak (Irati Morazak egina)




3. irudia: argitalpen herrialdeak (Irati Morazak egina)

Populazioa aztertuz, esan dezakegu parte-hartzaileen batz besteko adina 82 urtekoa dela. Orokorrean, emakume gehiago aztertu dira gizonak baino (batz beste %66a emakumeak izan dira). Azkenik, ikasketa urteak ere kontuan hartu dira. Aldagai honetan, aldakortasun handia somatzen da; zehazki, batz besteko hezkuntza urteak zazpi dira, baina hamabost artikuluetatik sei artikuluetan ez da ikaskuntza urteen batz bestekoa zehazten. Dementziari dagokionez, hamabi lanek dementsia mota ezberdinak dituzten pazienteak ikertu dituzte, bik zehazki AG zuten gaixoak eta bakarra DBa (4. irudia). Bestalde, artikulua bat fase arinean zentratu da, hiru fase moderatuan eta gainontzeko hamaika artikulua fase arineko zein moderatuko pazienteak nahastu dituzte haien ikerketan (5. irudia). Dementsia mota eta fase ezberdinek ez dute emaitzetan ezberdintasunik suposatu.




4. irudia: dementsia (Irati Morazak egina)



5. irudia: dementsia-faseak (Irati Morazak egina)


Errebisio bibliografiko honetan, hiru terapia kognitibo nagusien eraginkortasuna aztertu nahi zen: estimulazio kognitiboko terapia, entrenamendu kognitiboko terapia eta errehabilitazio kognitiboko terapia. Baina ia artikuluko guztiak (12/15) EsK aztertzen dute. Artikulu batek ErK aztertzen du, beste batek EnK eta beste batek ErK eta EnK elkarren artean konparatzen ditu (6. irudia).



6. irudia: interbentzioa (Irati Morazak egina)

Kategorien azterketa:

Hurrengo atal honetan, ikerketek aztertu dituzten emaitzak azalduko dira. Zuhaitz kategorialari jarraituz (6. eranskina), atal hau bi kategoria nagusietan banatuko da: funtzio kognitiboak eta EBJk. Funtzio kognitiboak, sei azpikategorietan banatuko dira (kognizio orokorra, oroimena, arreta, funtzio exekutiboak, praxis eta lengoaia) (7. irudia).



7. irudia: emaitzen kategoriak (Irati Morazak egina)

1. Funtzio kognitiboak:

Funtzio kognitiboak era batean edo bestean artikuluko guztietan ebaluatu dira. Horietatik gehienak kognizio orokorra ikertu dute eta beste askok funtzio kognitibo espezifikoak (oroimena, arreta, funtzio exekutiboak, praxisa eta lengoaia) aztertu dituzte.

1.1. Kognizio orokorra:

Hasteko, kognizio orokorra hamairu artikulutan ebaluatu da. Aldagai hau ebaluatzeko, hainbat eskala ezberdin erabili izan dira, baina artikuluko guztietan MMSE (hamaika artikuluetan) edo ADAS-Cog (hamar artikuluetan) eskalak ebaluatu izan dira. Horrez gain, beste hainbat eskala erabili izan dira: ENB2.tot., COGNISTAT, SKT eta GDS. Guzti hauen emaitz estatistikoak 4. taulan azaltzen dira.

Hauen artean, EsK interbentzioa hamabi lanetan aplikatu izan da. Horien erdiek Spector et al.¹⁸ EsK protokoloa jarraitu zuten eta gutxienez horietatik bostetan hobekuntza estatistikoki esanguratsuak lortu ziren KT eta IT arteko konparaketa egin ostean^{24,26,29,30,32}. Horietan guztietan ADAS-Cog edo MMSE eskalak erabili ziren. Gainera, Yamanaka et al.²⁶-ek COGNISTAT eskala ere erabili zuten eta honetan ere hobekuntza estatistikoki esanguratsuak topatu zituzten ($p < 0,0005$). Bestalde, nahiz eta Carbone et al.³⁵ artikuluan ez den p baliorik aipatzen, emaitzetan azaltzen da IT-ren MMSE balioak mantendu zirela pre-testatik post-testera eta ADAS-Cog-eko emaitzetan hobekuntzak antzeman zirela. KTn, berriz, bi testetan okerragotze bat eman zela azaltzen da eta alde hori estatistikoki esanguratsua den jakiterik ez dagoen arren, ikusten da taldeen arteko efektuaren tamaina ertaina dela bi eskaletan.

Horren harira, Orrell et al. taldeak, 2014. urtean Spector et al.¹⁸ EsK protokolotik abiatuz, ikerketa berri bat jarri zuen martxan. Interbentzio horretan, EsK terapia jaso ostean, beste 24 astez pazienteei mantentze-sesioak eskaini zieten. Halere, ez ziren hobekuntza nabarmenik aurkitu MMSE ezta ADAS-Cog ebaluazioetan ere, hau da, ez zen eraginkorra izan. Beraz, ondorioztatu daiteke Spector et al.¹⁸ EsK protokoloa eraginkorra izan dela kognizio orokorrari dagokionez epe motzeko interbentzio bezala (7 astez), baina horren efektua ez da luzaroan mantentzen nahiz eta interbentzioa luzatu.

Aurretik aipatutako protokoloa jarraitu ez dutenen gainontzeko sei ikerketen artean, Mapelli et al.²⁵-rena aurkitu dezakegu, epe motzeko interbentzioa. Honetan, zortzi asteko EsK bat aplikatu zuten eta emaitzak ohiko tratamenduarekin jarraitzen zuen kontrol talde batekin eta terapia okupazionala burutzen zuen PT batekin konparatu zituzten. Horretarako, MMSE eta ENB2tot. eskalak erabili zituzten. Lehenengoari dagokionez, ITn ez zen pre-testatik post-testera aldaketa esanguratsurik somatu, hots, puntuazioak mantendu ziren. Bi taldeen arteko konparaketan, p balioa esanguratsua da, ordea. Emaitz hori ITren mantentzea eta KTren okerragotzea bezala interpretatu daiteke. Bigarrena aldiz, beste hainbat subtesten batura den heinean, horietakoren batean hobekuntzak eman badira, lortu den emaitz esanguratsu horretan islatzen da. Horrez gain, epe motzeko interbentzioen artean, González et al. taldeak 2022. urtean argitaratu zituzten bi ikerketak ditugu^{37,38}. Lehen ikerketan, interbentzio hasieratik interbentzio amaierara, ITko MMSEko balioetan hobekuntza nabarmen bat eman zen. Aldiz, bigarren ikerketan, GDS eskalan, ITk puntuazioa mantendu zuen denboran zehar eta KTn, pre-testatik post-testara okerragotze bat eman zen. MMSE eskalari dagokionez, ITn pre-testatik post-testera puntuazioak mantendu ziren eta KTk okerrera jo zuen (halere, aldaketa horiek ez dira estatistikoki esanguratsuak). Esan daiteke beraz, nahiz eta Spector et al.¹⁸ EsK protokoloa ez jarraitu, epe motzeko interbentzioak (<2 hilabete) eraginkorrak direla kognizio orokorraren mantentzean.

Beste alde batetik, epe luzeko interbentzioak ditugu (>2 hilabete)^{31,34}. Orrell et al.³¹ artikuluan EsK programa bat aplikatu zen 25 astez, baina ez zen eraginkorra izan; izan ere, ez dira aldaketa estatistikoki esanguratsurik aurkitu taldeen arteko konparaketan edo ITko pre-testan eta post-testan lortutako emaitzen artean. Juárez et al.³⁴ ikerketan, aldiz, post-testa 12 hilabeteren buruan ebaluatu zen. Bertan, eskala guztietan (MMSE, ADAS-Cog eta SKT) aldaketa esanguratsuak aurkitu ziren KTn eta ITn. KTKo aldaketak okerragotzea islatzen dute, ITkoak aldiz, hobekuntza. Honekin, ezin da ondorio sendo bat atera; izan ere, ikerketa batean epe luzeko interbentzioa eraginkorra izan da eta bestean ez. Baina agian hau ez dago denborarekin lotuta, baizik eta lehen ikerketa horretan interbentzioa pazienteen etxean burutzen zelarekin, indibidualki eta zaintzaileak zuzenduz.

Bestetik, EsK erabili dutenen artean, esku-hartzearen epe luzeko ondorioak lau ikerketatan baino ez dira ebaluatu^{34,35,37,38}. Horien artean aurretik aipatutako Carbone et al.³⁵ lana aurkitzen da, non esan bezala, ez da p baliorik agertzen. Halere, aipagarria da, MMSE eta ADAS-Cog balioak jarraipenean (3 hilabete ondoren neurtu zen) mantendu zirela ITn eta okerrera jo zutela KTn, baina ezin dugu jakin taldeen arteko ezberdintasuna esanguratsua den (efektuaren tamaina txikia-ertaina da). Juárez et al.³⁴ ikerketan, aldiz, jarraipenaren ebaluaketa 24 hilabetetara egin zen eta erabilitako hiru eskaletan (MMSE, ADAS-Cog eta SKT), KTn okerragotze estatistikoki esanguratsu bat eman zen. Aldiz, ITn ez zen aldaketarik aurkitu, ez zen txartze handi bat eman. Horrez gain, González et al. taldeak 2022.urtean argitaratutako bi ikerketetan, jarraipena interbentzioa hasi eta hiru hilabetera ebaluatu zen^{37,38}. Lehen ikerketan, bi taldeen arteko konparaketa egitean, ikusi daiteke ez dagoela hobekuntza estatistiko esanguratsurik, bi taldeetan okerragotzea ematen delako. Aldiz, bigarren ikerketan, GDS eskalan, taldeek puntuazioa mantendu zuten denboran zehar. MMSE eskalari dagokionez, okerragotzea bi taldeetan eman zen eta horregatik ez dago ezberdintasun esanguratsurik. Kasu honetan ezta ezin da ondorio nagusi bat atera, bi ikerketetan ikusten da ITn puntuazioak mantentzen diren heinean, KTn okerrera egiten dutela eta beste bi ikerketetan txartze hori bi taldeetan ematen da.

Amaitzeko, Amieva et al.²⁸ artikulua dugu. Ikerketa honen interbentzioak hiru hilabete iraun zituen. Pazienteak lau talde ezberdinetan sailkatu zituzten: RemT, ErK, EnK eta KT. Dena den, ErK eta EnKko esku-hartzei dagokionez, ez zen hobekuntza esanguratsurik aurkitu ADAS-Cog post-testean ezta jarraipenean ere. Hots, ez dago ebidentziarik esateko ErK eta EnK eraginkorrak direla kognizio orokorraren hobekuntzarako.

4. taula: kognizio orokorra aztertu duten artikuluen emaitzak.

Autorea (Urtea) Interbentzio iraupena	Interbentzio eta kontrol taldeko eskuhartzeak	EMAITZAK					
		Interbentzio aurretik	Interbentzio ostean	p	Jarraipenean	p	p (taldeen artean)
Aguirre et al. (2013) ²⁴ (7 aste)	IT= Estimulazioa	MMSE: 15,8 (0,99) ADAS-Cog: 35 (2)	MMSE: 18,5 (0,89) ADAS-Cog: 30,6 (2,3)	<0,001 <0,001	-	-	-
Mapelli et al. (2013) ²⁵ (8 aste)	KT= Ohiko tratamendua	MMSE: 18,8 (2,68) ENB2.tot.: 33,6 (8,6)	MMSE: 18,5 (2,73) ENB2.tot.: 31,4 (5,5)	-	-	-	MMSE: <0,05
	PT= Terapia okupazionala	MMSE: 19,7 (3,8) ENB2.tot.: 35,4 (7,4)	MMSE: 18,2 (2,71) ENB2.tot.: 33,9 (8,1)	-	-	-	ENB2.tot.: <0,05
	IT= Estimulazioa	MMSE: 20,1 (4,2) ENB2.tot.: 34,8 (5,8)	MMSE: 23 (2,76) ENB2.tot.: 43,5 (9,2)	>0,05 <0,05	-	-	
Yamanaka et al. (2013) ²⁶ (7 aste)	KT= Ariketa okupazionalak	COGNISTAT: 64,77 (2,59) MMSE: 16,87 (0,77)	COGNISTAT:64,35(2,59) MMSE: 16,47 (0,77)	-	-	-	COGNISTAT 0,0005
	IT= Estimulazioa	COGNISTAT: 65,42 (2,78) MMSE: 17 (0,83)	COGNISTAT: 72,26 (2,8) MMSE: 18,63 (0,83)	-	-	-	MMSE: 0,003

4. taula: kognizio orokorra aztertu duten artikuluen emaitzak.

Autorea (Urtea) Interbentzio iraupena	Interbentzio eta kontrol taldeko eskuhartzeak	EMAITZAK					
		Interbentzio aurretik	Interbentzio ostean	p	Jarraitzean	p	p (taldeen artean)
Orrell et al. (2014) ²⁷ (6 hilabete)	KT=Ohiko tratamendua	-	ADAS-Cog: 35,29 (2,89) MMSE: 15,49 (1,25)	-	-	-	ADAS-Cog: 0,67 MMSE: 0,15
	IT= Estimulazioa (mantentzea)	-	ADAS-Cog: 35,94 (2,79) MMSE: 16,34 (1,21)	-	-	-	
Amieva et al. (2016) ²⁸ (3 hilabete)	KT= Ohiko tratamendua	-	ADAS-Cog: 17 (7,4)	-	ADAS-Cog: 21,59 (10,2)	-	-
	EnK= Entrenamendua	-	ADAS-Cog: 16,6 (7)	EnKxKT 0,8036	ADAS-Cog: 22,71 (12,3)	EnKxKT 0,9243	
	ErK= Errehabilitazioa	-	ADAS-Cog: 16,39 (7,5)	ErKxKT 0,6346	ADAS-Cog: 23,11 (13,7)	ErKxKT 0,5468	
Capotosto et al. (2017) ²⁹ (7 aste)	KT= Ariketa okupazionalak	MMSE:18,2 (3,63) ADAS-Cog: 45,16 (13,37)	MMSE:17,81 (3,92) ADAS-Cog: 47,84 (11,65)	-	-	-	MMSE: 0,045 ADAS-Cog 0,007
	IT= Estimulazioa	MMSE:18,3 (3,14) ADAS-Cog: 39,35 (11,2)	MMSE:18,48 (3,32) ADAS-Cog: 38,45 (11,54)	-	-	-	
Paddick et al. (2017) ³⁰ (7 aste)	KT= Ariketa okupazionalak	ADAS-Cog: 27,4 (6,647)	ADAS-Cog: 26,6 (7,121)	-	-	-	<0,001
	IT= Estimulazioa	ADAS-Cog: 31,5 (8,358)	ADAS-Cog: 23,4 (8,560)	-	-	-	
Orrell et al. (2017) ³¹ (25 aste)	KT= Ohiko tratamendua	-	ADAS-Cog: 20,58 MMSE: 20,1	-	-	-	ADAS-Cog 0,45 MMSE: 0,23
	IT= Estimulazioa	-	ADAS-Cog: 20,03 MMSE: 19,63	-	-	-	
Piras et al. (2017) ³² (7 aste)	KT= Ariketa okupazionalak	MMSE:19,03 (4,65) ADAS-Cog: 31,22 (12,14)	MMSE:17,79 (3,47) ADAS-Cog: 32,29 (9,75)	-	-	-	MMSE: <0,01 ADAS-Cog: <0,05
	IT= Estimulazioa	MMSE: 20,29 (3,42) ADAS-Cog: 31,85 (10,25)	MMSE: 21,72 (4,45) ADAS-Cog: 28,99 (9,36)	-	-	-	
Juárez et al. (2017) ³⁴ (12 hilabete)	KT= Ohiko tratamendua	MMSE: 22,9 (1) ADAS-Cog: 19,8 (2) SKT: 9,1 (1,4)	Mean ± SD MMSE: 3,12 (±4,29) ADAS-Cog: -3,87 (±8,48) SKT: -4,81 (±5,73)	0,001 <0,0001 <0,0001	Mean ± SD MMSE: 3 (±3,61) ADAS-Cog: -6,68 (±11) SKT: -6,68 (±6,08)	0,005 0,028 0,001	MMSE: post: 0,001 jarr.: 0,427 ADAS-Cog: post:<0,0001 jarr.: 0,003 SKT: post:<0,0001 jarr.: 0,003
	IT= Estimulazioa	MMSE: 22,4 (0,8) ADAS-Cog: 17,7 (1,8) SKT: 10,4 (1,1)	Mean ± SD MMSE: -2,05 (±4,41) ADAS-Cog: 5,3 (±8,94) SKT: 6,9 (±6,25)	0,008 0,001 <0,001	Mean ± SD MMSE: 1,17 (±4,29) ADAS-Cog: -2,47 (±9,45) SKT: -0,9 (±4,57)	0,167 0,222 0,362	
Carbone et al. (2021) ³⁵ (7 aste)	KT= Ariketa okupazionalak	MMSE: 19,9 (3,92) ADAS-Cog: 30,72 (11,63)	MMSE: 18,67 (4,14) ADAS-Cog: 32,6 (12,62)	-	MMSE: 18,29 (4,25) ADAS-Cog: 32,64 (14,13)	-	**
	IT= Estimulazioa	MMSE: 20,17 (4,02) ADAS-Cog: 28,4 (10,2)	MMSE: 21,06 (4,45) ADAS-Cog: 26,08 (10,9)	-	MMSE: 20,68 (4,55) ADAS-Cog: 26,53 (11,42)	-	
González et al. (2022) ³⁷ (8 aste)	KT= Ohiko tratamendua	MMSE: 19,93	MMSE: 18,31	0,045	MMSE: 17,48	-	0,497
	IT= Estimulazioa	MMSE: 19,3	MMSE: 20,13		MMSE: 18,23	<0,001	

4. taula: kognizio orokorra aztertu duten artikuluen emaitzak.

Autorea (Urtea) Interbentzio iraupena	Interbentzio eta kontrol taldeko eskuhartzeak	EMAITZAK					
		Interbentzio aurretik	Interbentzio ostean	p	Jarraipenean	p	p (taldeen artean)
González et al. (2022) ³⁸ (8 aste)	KT= Ariketa okupazionalak	GDS: 3,7 MMSE: 23,7	GDS: 3,9 MMSE: 21,9	GDS: <0,01	GDS: 3,9 MMSE: 20,6	GDS: 0,005	GDS: 0,038
	IT= Estimulazioa	GDS: 3,7 MMSE: 23,2	GDS: 3,6 MMSE: 23,5	MMSE: 0,163	GDS: 3,7 MMSE: 22,3	MMSE: 0,186	MMSE: <0,01
<p>**Artikuluaren ez da p baliorik ageri, baina emaitzetan modu kualitatiboan azaltzen da IT-ren MMSE balioak mantendu zirela bai pre-testetik post-testera baita jarraipeneko ebaluaketara ere eta ADAS-Cog-eko emaitzetan hobekuntzak antzeman zirela. Ktn, berriz, bi testetan okerragotze bat eman zela azaltzen da. Efektuaren tamaina txiki-ertaina dela adierazten da.</p>							

1.2. Oroimena:

Funtzio kognitiboaren artean, lehen oroimena dugu, gehien aztertu den funtzio kognitiboa izanik. Zehazki, hamabost artikuluetatik zortzitan funtzio hau ebaluatu da. Horretarako, hainbat test ezberdin erabili dira: BDS, TAVEC, IRPM, DRPM... Horien emaitza estatistiko guztiak 5. taulan azaltzen dira.

Hasteko, Spector et al.¹⁸ EsK protokoloa jarraitu duten ikerlanen artean, hiruk oroimena aztertu dute. Horien artean, bik (Capotosto et al.²⁹ eta Piras et al.³²) BDS testa erabili dute funtzio hau ebaluatzeko, baina bietako batek ere ez du emaitza esanguratsurik lortu. Aldiz, Paddick et al.³⁰ artikuluan, oroimena ADAS-Cog eskalaren oroimen subtestaren bidez neurtu da eta hobekuntza estatistikoki nabarmena antzeman da.

Jarraitzeko, González et al. taldeak 2022. urtean lagin ezberdinak erabiliz aurrera eraman zuten bi ikerketak ditugu^{37,38}. Hauetan, oroimena TAVEC eskalaren bidez neurtu zuten (berehalako zein atzeratutako oroitzapena neurtzen duena). Horrez gain, lehenengo lanean WAIS-III eskalako FDS eta BDS subtestak erabili zituzten. Beraz, hori kontuan hartuz hainbat ezaugarri aipatu daitezke: lehenik, FDS eta BDS subtestetan ez zela aldaketa esanguratsurik ageri ez post-testean ezta hiru hilabeteko jarraipenean ere. Bigarrenik, lehen ikerketaren post-testean TAVEC azpimota guztietan (berehalakoa, atzeratutakoa eta totala) ezberdintasun nabarmenak aurkitu zirela bi taldeen artean, baina jarraipenean ez ziren aurkitu kasu bakar batean ere aldaketarik somatu. Bigarren ikerketan, berriz, soilik atzeratutako oroimenean ikusi ziren ezberdintasun horiek, bai post-testean baita jarraipenean ere. Halere, esku-hartzeak taldeen artean eta denboran zehar izan duen eragina alderatzean, aldaketa estatistikoki esanguratsuak ikus daitezke bi lanen TAVEC subtest guztietan. Horrek esan nahi du KTK okerrera egin duela pixkanaka, eta EsK-ri esker, ITk bere emaitzei eutsi diela edo post-testetan ere apur bat hobetzea lortu dezakela.

Mapelli et al.²⁵ artikuluan ere, 8 astez EsK aplikatu zen. Kasu honetan, erabilitako hiru tresnetan (IRPM, DRPM eta BPT) ITk hobekuntza estatistikoki esanguratsuak azaldu zituen post-testean. Taldeen arteko konparaketa egitean ere aldaketa horiek antzeman ziren BPT testeko PT eta ITren arteko alderaketan izan ezik.

Hori guztia kontuan hartuz, esan daiteke, epe motzeko interbentzioen artean, BDS eta FDS eskaletan izan ezik, beste guztietan emaitz esanguratsuak azaldu direla EsKren eraginkortasuna frogatuz. Halere, oro har, hobekuntza hori jarraipenean ez da mantentzen.

Amaitzeko, EnK-k eta ErK-k oroimenean duten eragina ere aztertu zuten bi artikuluk RBMT, BDS eta ADAS-Cog testak erabiliz, baina ez batan ez bestean ez ziren ezberdintasun esanguratsurik aurkitu^{33,36}. Hau da, oroimenarako, ez dago ebidentziarik ziurtatzeko EnK eta ErK eraginkorrek diren.

5. taula: oroimena aztertu duten artikuluen emaitzak.

Autorea (Urtea) Interbentzio iraupena	Interbentzio eta kontrol taldeko eskuhartzeak	EMAITZAK					
		Interbentzio aurretik	Interbentzio ostean	p	Jarraipenean	p	p (taldeen artean)
Mapelli et al. (2013) ²⁵ (8 aste)	KT= Ohiko tratamendua	IRPM: 4,9 (2,6) DRPM: 3,7 (2,4) BPT: 0,9 (1,28)	IRPM: 4,2 (2,34) DRPM: 2,9 (2,28) BPT: 1 (1,15)	-	-	-	IRPM: <0,05 DRPM: <0,05 BPT (PTxIT): >0,05 BPT (KTxIT): <0,05
	PT= Terapia okupazionala	IRPM: 3,4 (2,2) DRPM: 2,7 (1,4) BPT: 2,2 (2,09)	IRPM: 2,9 (1,85) DRPM: 2,2 (2,28) BPT: 2,1 (1,96)	-	-	-	
	IT= Estimulazioa	IRPM: 4,6 (2,2) DRPM: 3,8 (2,9) BPT: 1,1 (2,02)	IRPM: 7,2 (3,7) DRPM: 8 (3,9) BPT: 2,8 (1,9)	<0,05 <0,05 <0,05	-	-	
Capotosto et al. (2017) ²⁹ (7 aste)	KT= Ariketa okupazionalak	BDS: 2,9 (1,2)	BDS: 4,47 (4,94)	-	-	-	0,59
	IT= Estimulazioa	BDS: 2,7 (0,66)	BDS: 5,8 (11,12)	-	-	-	
Paddick et al. (2017) ³⁰ (7 aste)	KT= Ariketa okupazionalak	ADAS-Cog (oroimena): 15,4 (3,961)	ADAS-Cog (oroimena): 14,4 (4,367)	-	-	-	0,032
	IT= Estimulazioa	ADAS-Cog (oroimena): 16,4 (3,16)	ADAS-Cog (oroimena): 12,6 (3,722)	-	-	-	
Piras et al. (2017) ³² (7 aste)	KT= Ariketa okupazionalak	BDS: 2,25 (0,97)	BDS: 2,17 (0,39)	-	-	-	<0,07
	IT= Estimulazioa	BDS: 2,88 (0,62)	BDS: 3,19 (1,33)	-	-	-	
Clare et al. (2019) ³³ (10 aste)	KT= Ohiko tratamendua	RBMT-i: 2,73 (2,12) RBMT-d: 0,37 (1,97)	RBMT-i: 2,79 (2,12) RBMT-d: 0,66 (2,16)	RBMT-i: 0,189 RBMT-d: 0,096	RBMT-i: 2,37 (1,96) RBMT-d: 0,36 (1,97)	RBMT-i: 0,496 RBMT-d: 0,466	- -
	IT= Errehabilitazioa	RBMT-i: 2,58 (2,1) RBMT-d: 0,39 (1,94)	RBMT-i: 2,88 (2,16) RBMT-d: 0,94 (2,31)		RBMT-i: 2,34 (2,09) RBMT-d: 0,23 (1,97)		
Kallio et al. (2021) ³⁶	KT= Ohiko tratamendua	BDS: 12,4 (3) ADAS-Cog (WR): 65,1 (13,2)	Mean Change (95%CI) BDS: 0,1 (-0,4 - 0,7)	-	-	-	BDS: 0,09 ADAS-Cog (WR): 0,41

5. taula: oroimena aztertu duten artikuluen emaitzak.

Autorea (Urtea) Interbentzio iraupena	Interbentzio eta kontrol taldeko eskuhartzeak	EMAITZAK					
		Interbentzio aurretik	Interbentzio ostean	p	Jarraipenean	p	p (taldeen artean)
(12 aste)	IT= Entrenamendua	BDS: 13,1 (3,2) ADAS-Cog (WR): 67,3 (13,2)	ADAS-Cog (Word Recognition): -1,9 (-4,3 - 0,5)	-	-	-	
González et al. (2022) ³⁷ (8 aste)	KT= Ohiko tratanendua	TAVEC-I: 2,38 TAVEC-TOT: 18,62 TAVEC-DLY: 1,38 FDS: 4,48 BDS: 2,48	TAVEC-I: 2,28 TAVEC-TOT: 14,52 TAVEC-DLY: 0,93 FDS: 3,93 BDS: 2,07	TAVEC-I: 0,046 TAVEC-TOT 0,046	TAVEC-I: 1,79 TAVEC-TOT: 13,76 TAVEC-DLY: 0,93 FDS: 3,72 BDS: 1,86	TAVEC-I: 0,362 TAVEC-TOT 0,402 TAVEC-DLY: 0,275	TAVEC-I: 0,01 TAVEC-TOT: <0,001 TAVEC-DLY: 0,002 FDS: 0,161 BDS: 0,215
	IT= Estimulazioa	TAVEC-I: 1,87 TAVEC-TOT: 15,73 TAVEC-DLY: 0,77 FDS: 4,6 BDS: 2,2	TAVEC-I: 2,93 TAVEC-TOT: 18,57 TAVEC-DLY: 1,77 FDS: 4,57 BDS: 2,23	TAVEC-DLY: 0,013	TAVEC-I: 2,07 TAVEC-TOT: 15,5 TAVEC-DLY: 1,3 FDS: 4,03 BDS: 2		
González et al. (2022) ³⁸ (8 aste)	KT= Ariketa okupazionalak	TAVEC-I: 2,9 TAVEC-DLY: 2,1	TAVEC-I: 2,7 TAVEC-DLY: 1,7	TAVEC-I: 0,195 TAVEC-DLY: <0,05	TAVEC-I: 2,5 TAVEC-DLY: 1,4	TAVEC-I: 0,83 TAVEC-DLY: 0,022	TAVEC-I: <0,05 TAVEC-DLY: <0,01
	IT= Estimulazioa	TAVEC-I: 2,6 TAVEC-DLY: 2,1	TAVEC-I: 3,2 TAVEC-DLY: 3,1		TAVEC-I: 2,6 TAVEC-DLY: 2,8		

1.3. Arreta:

Arretaren funtzio kognitiboari dagokionez, lau ikerlanetan aztertu da hainbat eskala ezberdin erabiliz (6. taula). Horietatik, bitan EsK-ren eragina neurtu da^{37,38}. Lehen artikuluan, ebaluazioa egiteko, STROOP eskalaren hainbat subtest erabili ziren (STROOP-W, STROOP-C, STROOP-W/C eta STROOP-I), baina post-interbentzian soilik STROOP-W testean (agertzen doazen hitzak ahalik eta azkarren irakurtzean datza) antzeman ziren ezberdintasun esanguratsuak. Bigarren artikuluan FDS-a erabili zen, ordea. Kasu honetan, jarraipeneko neurketan ez ezik beste ebaluaketa guztietan ezberdintasun esanguratsuak ageri ziren; izan ere, post-testean, KTan okerragotze bat eman zen eta ITn, aldiz, hobekuntza, baina jarraipenean bi taldeek okerrera jo zuten. Beraz, epe motzeko EsK eraginkorra da hasiera batean, baina hobekuntzak ez dira jarraipenean mantentzen.

Clare et al.³³ artikuluan, ErK-ren eragina aztertu zen TEA testaren bidez. Bestalde, Kallio et al.³⁶ artikuluan, TMT tresnaren bidez, EnK-ren eraginkortasuna ikertu zen. Dena den, bi kasuetako batean ere ez zen alde estatistikoki esanguratsurik hauteman. Hots, ez dago ebidentziarik esateko EsK-k eta EnK-k demenziadunen arreta hobetzen dutela.

6. taula: arreta aztertu duten artikuluen emaitzak.

Autorea (Urtea) Interbentzio iraupena	Interbentzio eta kontrol taldeko eskuhartzeak	EMAITZAK					
		Interbentzio aurretik	Interbentzio ostean	P	Jarraipenean	p	p (taldeen artean)
